

DURANGOKO AZOKA

Editore ofizioaren argiak eta ilunak

 **KULTURA /** Joxean Agirre

Txalapartako Mikel Sotok gogoratu digun bezala, editore ofizioa aipatu eta askori filmetako irudiak etortzen zaizkie gogora: gizon bat besaulki batean eserita, ondoan kopa bat koñak duela, eskuizkribu bat irakurtzen eta tarteka algarak eginez. Beste askori editoreen ofizioa aipatu eta haien inguruan dagoen legenda beltza etortzen zaie burura eta berehala hasten dira irakurri eta atzera

Carlos Barralek, esate baterako, Garcia Marquezen “Cien años de soledad” baztertu egin zuen eta Argentinako argitaletxe batean kaleratu zuen liburua idazle kolonbiarrak. Gallimard etxeko editore zela, Marcel Prousten “Denbora galduaren bila” irakurri eta baztertu egin zuen Andre Gidek. Ez zen bakarra izan, beste hainbatek gaitzetsi zuten obra hori. Editore horietako batek ohar hau idatzi zion bazter batean Prousti: «Ez dakit zertarako behar dituzun 30 orrialde tipo bat ohean jarreraz aldatuta lo egiteko eroso jarri dela adierazteko».

Kasu gehiago daude, noski: “Harry Porter” ezagunak dozena bat ezezko jaso zituen argitaratu ahal izan baino lehen. Bloomsbury argitaletxeko jabearen 8 urteko alabak eskatu zion azkenean aitari obra hori mesedez argitaratzeko. Agatha Christie, Golding, Joyce, Le Carre, Nabokov.... eta beste asko daude ezezkoak jaso zituzten idazleen zerrendan. Doris Lessingek bere lan bat bidali zuen argitaletxe ezberdinetara beste izen bat erabiliz eta guztiek atzera bota zioten.

Zenbat eskuizkribu irakurtzen dituzte editoreek? Nolako da eze-tza emateko unea? Zein dira editore ofizioak ematen dizkien unerik gozoenak? Nolakoak dira idazleekin dituzten harremanak? Hemingwayren editoreak, Maxwell Perkinsek, idazleari arrantzarako trepetak ere berak erosten omen zizkion, eta, dibortzioak etorri zirenean, bera arduratzen zen emazte ohiekin negoziatzeaz. Bennet Cerfek (Joyceren AEBetako editoreak) lehen aldiz Gertrude Stein Paristik New Yorkera eraman zuenean, hoteletan gosaltzeko croissantik ez zutela jartzen-eta, goizera Manha-

ttango okindegi frantziar bakarre-ra joan beharra izaten zuen gutizia horren bila. Hain adeitsuak al dire gure editoreak idazleekin?

Famatua izan zen era berean Thomas Bernharden eta bere editorearen arteko harremana. Migel Sanchez Ostizek idazle austriarrari buruz idatzi zuen liburuak aipatzen du gaia: behin eta berriz haserretzen ziren, eteten zituzten harremanak, eta bazkari baten bueltan adiskidetzen ziren berriro, segidan berriro haserretzeko. Harreman korapilatsu horren lekuko egun argitaratuta dauden 800 bat gutun gelditu ziren. Gure editoreek ba al dute horrelako eroapenik? Noski, ez dituzte beharbada aurrean Bernhard bezalako jenioak ere. Gai hauen inguruan aritu gara Txalaparta, Elkar, Erein eta Susako editoreekin.



Editorearen lana funtsezkoa da, baina ez da ikusten. JAUREGIALTZO | A.P.

bota zituzten maisulanak zerrendatzen. Eskuizkribuak irakurtzea editoreen lana da, baina ez bakarra. Beren gain dute idazleekiko harremanak zaindu eta idazten ari diren lanaz arduratzea ere. Edonola ere, liburua kaleratzen denean, maketatzailerak, argazkilaria eta azalaren egileak agertzen dira. Editorearen izenik, ordea, ez. Asko hitz egiten da idazleen ofizioaz eta oso gutxi editoreenaz.

MIKEL SOTO • TXALAPARTA

«Nirea bokazioa da»

Editore bokazionala da, lan horretarako jaioa dela dirudi, baina halabeharrez eta txiripaz sartu zen ofizioan. Historiako ikasketak bukatu eta bibliotekonomiako masterra hasi zuen, liburuzain izan nahi zuelako. «Liburuak asko gustatu izan zaizkit, liburuekiko fetitxismo halako bat dut eta nire zaletasun hori ase zezakeen lanbide bakarra liburuzain izatea zela uste nuen. Editore gisa lanean hasi eta urtebetera-edo ohartu nintzen nik benetan ez nuela liburuzain izan nahi, editore baizik. Orain editore lana liburuzainarena baino askoz ere aberatsagoa iruditzen zait».

Espetxetik atera berri, taberna batean ari zen lanean Eider Rodriguezen lekua betetzeko berarekin gogoratu zirenean. Historiako ikasketak egin zituen arren, espetxean Euskal Filologia ikasten hasi zen, literatura gustatzen zitzaiolako. «Gogoan dut dagoeneko lanean ari nintzela anaiak, Iñakik, Jose Mari Espartzarekin topo egin eta honek ea gustura al nenbilen galdetu ziola eta anaiak erantzun omen zion pozik egon behar zutenak haiek zirela, editore lanerako profil perfektua aurkitu zutelako, eta nire merituak zerrendatu omen zizkion: Historian lizentziatua, ezker abertzalearen historian aditua, literaturazalea eta hiru hizkuntzaren jabe nintzela alegia».

Orain hamar urte hasi zen Txalapartan. Orduan banaketa argi bat zegoen, erdarazko liburuen editorea batetik eta euskarazkoena

bestetik. Oraindik ere Jon Jimenezek egiten ditu gaztelerazko liburu gehienak eta Mikelek euskarazkoak, baina gehiago partekatzen dituzte hizkuntzak. «Saiakera liburu bat prestatzen ari gara euskaraz Jule Goikoetxea, Andoni Olariaga, Unai Apaolaza eta Imanol Kalparsorekin eta berak darama edizio lana, Filosofia ikasitakoa delako, nahiz eta euskarazko saiakera liburu den; alderantziz, gaztelerazko lanak ere egiten ditut nik, banaketa nagusia errespetatzen dugun arren».

Ederra al da liburu bat egiteko ideia bat izan eta hori poliki-poliki gauzatzen joatea? Hori ere editore baten lana izango da, ezta?

Ni gehien betetzen nauen lana da. Zerotik zerbait sortzea bezala da. Oraintxe atera dugu “ETAren historia iruditan”. Ideia bat izan eta hori hezurmamitzea, ez dago gauza ederragorik. Baina editore batek gauza asko egin behar izaten ditu: idazkari, ekonomista eta psikologo ere izan behar du, esate baterako.

Nazioarteko argitaletxe independenteekin harreman estuak dituzue. Lan horiek ere banatuta al dituzue?

Liburu politikoak argitaratzen dituen Contrabandos argitaletxe espainiarrarekin, esate baterako, Jon gehiago egoten da. Nazioarteko elkarteekin beharbada ni gehiago, baina bidaia horiek banatu egiten ditugu.

Nazioarteko argitaletxe independenteen artean Txalaparta ezaguna al da?

Bai, bai. Bazoaz Argentinara eta Txalapartakoa zarela esatea aski da begirunez trata zaitzaten. Azkeneko aldiz egon nintzenean Alkal etxeko editorea etorri zitzaidan eta gure katalogoa asko miresten zuela esan zidan. Hogeita bost urte daramatza Txalapartak lanean eta gauza asko argitaratu du dagoeneko.

Urtean zenbat izenburu editatzen dituzue?

Hogeita hamabost inguru.


Hogeita hamabost izenburu argitaratzeko zenbat eskuizkribu irakurri behar dira?

Ehunka. Eleberri beltzaren atalean, esate baterako, Jon Alonsoren liburua argitaratu dugu oraindik orain, baina Jon Alonso puntako idazlea da; iristen zaizkigun testu asko, aldiz, txarrak izaten dira.

Ordenagailuak editoreei lana ikaragarri erraztu digu, baina, aldi berean, gure lana okertu ere egin du. Lehen, eleberri bat idatzi nahi zuenak, kopia bat etxean eduki ahal izateko, idazmakinarean aurrean eseri eta bi orriren artean kalkoa jarri beharra izaten zuen; horrenbestez, pentsatzen dut askoz ere gehiago neurtuko zuela etorria edo hitz-jarioa. Orain jendeak aise idazten ditu eleberriak eta egunerokoak. Euskarazkoak gutxienik osorik irakurtzen ditut eta asko ez dira gutxieneko maila batera iristen.

Zuen lanaren zati handi bat izango da hori.

Bai, baina lan hori gehienetan bulego orduetatik kanpo egiten dugu. Argitaratzera goazen liburuak irakurri eta txukuntzen



Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

ditugu bulego orduetan eta besteak etxera eramaten ditugu. Bestela ez genuke libururik aterako. Editorea naizela esaten diedanean uste dut batzuek besaulki batean eserita irudikatzen nautela, ondoan kopa bat koñak dudala, irakurtzen, tarteka algara batzuk eginez. Baina irakurtzeaz gainera beste hainbat gauza ere egin behar izaten ditugu.

Testu txarrak irakurtzeak nekatu egingo du.

Oso nekagarria da. Asteazkenean liburu konplexu samar batekin aritu nintzen goizeko zortzietatik gaueko hirurak arte eta leher eginda bukatu nuen, baita fisikoki ere. Urtero, Durango iristen denean, argaldu egiten naiz. Nik normalean korrika egiten dut urtean zehar, baina, Durango aurreko hilabeteotan, korrika egiteari utzita ere, pisua galtzen

dut. Dena den, ez naiz kexatzen ari, lanbidea asko gustatzen zait.

Oso gogorra al da idazle bati ezetza esatea?

Bereziki gogorra da ezagunekin eta aurretik zerbait argitaratu duten idazleekin. Badakizu ahalegin ikusgarria egin duela, baina ez zaizu iruditzen argitaragarria denik. Guretzat gogorra da eta idazlearentzat are gogorragoa. Guretzat liburu bat gehiago da katalogoan. Idazlearentzat bere liburua da, azken urteetako lanaren emaitza, egin duen zerik garrantzitsuena. Ezezkoa arrazoitu egin behar izaten dugu, baina batzuetan ez du balio. Gogoratzen naiz sartu eta gutxira ezezkoa ematea egokitu zitzaidala nire irakasle izandako bati. Hiru bat orrialdeko testua prestatu nion erabakia arrazoituz eta alferrik izan zen, hiru orrialde horietatik

esaldi bakar bat, arrazoi bakar bat hartu baitzuen begitan. Geroztik ezezkoaren arrazoi zehatz batzuk eman ohi dizkiet eta kito. Pertsona bati alferrik min ematea ez dago ondo. Labur eta argi arrazoi bakan batzuk bakarrik ematearen aldekoa naiz. Dena den, askotan nahasten gara eta sartzen dugu hanka: uste genuen izenburu bat txarra zela eta funtzionatu egin du, uste genuen zati bat ez zela ona eta kritikak begi onez ikusi du. Horregatik kontu handiz ibili behar izaten dugu.

Zenbat eta idazle hobeak orduan eta egoskorragoak al dira?

Alderantziz dela esango nuke. Nire esperientziaren arabera, idazle onak baliabide asko ditu lan bat beste era batera moldatuta irudikatzeko, eta, hortaz, idazle onek errazago ulertzen eta onartzen dituzte gomendioak edo


aholkuak. Idazle onak dira apalenak eta batzuek estimatu egiten dute esaten zaiena.

Zeintzuk dira editore baten bertute beharrezkoenak?

Psikologia handia behar du, hasteko. Chandleren emaztea hil berritan “Agur luzea” idatzi zuenean, editoreak ez zitzaiola gustatu esan zion eta zauri horrek bizitza osoa iraun zion. Ulerkorra izan behar du, enpatia ezinbestekoa du, adiskidetasuna eskaini behar dio idazleari, jendetasuna garrantzizkoa da....

Zein dira editore baten pozik eta penarik handienak?

Zuk nahi zenuen zerbait zuk nahi zenuen bezala ateratzeari poza handia da. Penak askotan ezdeusak dira edo erlatiboak. Guk deskubritutako idazle bat baino gehiago joan zaizkigu argitaletxe handietara eta horrek pena ematen du, baina pena erlatiboa da. Giaconda Belli edo Marcela Serrano joan zitzaizkigun guri, baina zer egingo dugu bada, esaten duzu. Gero badaude errepikatzen diren penak: liburua inprimategitik atera, begiratzen hasi eta akatsen batekin topo egiteak mina ematen du eta beti aurkitzen dituzu. «*Las erratas son las últimas en abandonar el barco*», esan ohi da editoreen artean. Txalapartaren hasieran, beti kontatzen dute adibide bera; “Morir por Palestina” argitaratu zutenean, Arafatek idazki bat egin zuen eta hitzaurre gisa argitaratu zuten gazteleraz eta arabieraz, baina arabierazko bertsioan plantxak buelta emanda jarri eta letrak alderantziz agertu ziren. Jose Mari Espartzak esaten du editorea etsaiak egiteko makina bat dela eta hori ere egia da.



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

IÑAKI ALDEKOA • EREIN

«Saizarbitoriaren ‘Hamaika pauso’ lanarekin estreinatu nintzen»

Hogeita bi urte daramatza dagoeneko Ereinen editore. Donostiako Irakasle Eskolan irakasle zela, Idahora joan zen hilabete batzuetarako eta han zegoela deitu zioten argitaletxeko ardura hartzeko; eta geroztik bi lanak partekatzen ditu, Irakasle Eskolakoa eta Ereingoa, eta ondo datorkiola uste du, batean arazoak daudenean bestera ihes egiteko aitzakia ematen baitio. Urte txarrak izan ziren hasierakoak, argitaletxea banatu berria baitzen, lankide talde bat atera eta Alberdania sortu zutenean. 68ko Maiatzari buruzko saiakera bat bukatu berri du, Durangoko Azokara eramateko asmotan.

Zu arduratzen al zara eskuizkribuak irakurtzeaz? Hori da nire eginkizun nagusietako bat. Eskuizkribu denak igarotzen dira nire eskuetatik. Ez ditut guztiak osorik irakurtzen, baina euskarazkoak bai.

Inoiz gertatu al zaizu zuk irakurritakoren bat beste argitaletxe batan ateratzea? Bai, noski, eta alderantziz ere bai. Gogoan dut Jokin Muñozen lehen liburua, “Hausturak” deitzen zela uste dut. Nik hemen nuen liburua, baina Alberdaniak lehenago irakurri eta argitaratu egin zuen, eta han atera zituen ondorengoak. Adibide bat besterik ez da. Gertuago dagoen beste bat aipatuko dut, nahiz eta bera matraka horrekin jarraitzen dudalako kexatuko zaidan: Arantxa Urretabizkaia “Zuri-beltzeko argazkiak” oroitzapen liburuarekin etorri zitzaidanean nik gehiago eskatu nion, 13 urterekin planto egiten zuelako. Arantxa Urretabizkaia gaur dena 60ko hamarkadan hasi zela egiten pentsatzen nuen eta liburua luzatzeko eskatu nion. Berak ez zuen nahi izan eta Pamielan argitaratu zuen. Badago idazleen aldetik halako fideltasun bat argitaletxeekiko, baldin eta gaizki

tratatzen ez baditugu behintzat, eta, kasu honetan, aitortzen dut hanka sartu nuela, gehiegi eskatu niola.

Eskuizkribuetatik portzentaje bat egongo da atzera botatzen duzuen. Gogorra al da idazle bati ezetza ematea? Oso gogorra da. Nik 22 urte daramatzat ofizio honetan eta egundo ez naiz ohitu. Ezetza emanez e-mail bat bidaltzen duzu eta biharamunean ere ez dit onik egiten postako zerrenda mezuak hor jarraitzen duela ikusteak. Gure literatura esparrua, gainera, oso txikia da, idazle gehienekin topo egin behar duzu eta horrek zaildu egiten du erabakia.

Zaila al da ezezkoen portzentajea aipatzea? Zaila da. Ni neu gero eta zorrotzago jartzen ari naiz eta generoka ere asko aldatzen da portzentaje hori. Gazteentzako ere ezin du edonork idatzi, gazte

«Ezetza ematea oso gogorra da. 22 urte daramatzat eta egundo ez naiz ohitu; e-mail bat bidaltzen dut eta biharamunean ere ez dit onik egiten postako zerrendan mezua ikusteak»

«Nobela baten bizkarrezurra eginda dagoenean ez da erraza eskua sartzea, oso esparru labainkorra da. Zirujau lana oso zaila da»

nobela bat idazteko ere nobelagile izan behar da. Guk gazte literatura gutxi argitaratzen dugu, itzulpenetara jo izan dugu azken urteotan, baina itzulpenak ere ez du oso ondo funtzionatzen. Beraz, haur eta gazte literaturan eskuizkribu asko uzten dugu bazterrean. Helduen literaturan gutxiago. Izen bat egina duen idazlearen liburuari errazago egiten zaio lekua.

Zuek idazle beteranoen multzo bat baduzue nominan. Bai, hala da, baina horrek ere badu bere alde makurra: gazte jendeak beren adineko idazleak nahi dituelako. Beldur pixka bat ematen du hain arin hitz egiteak, baina idazle gaztea eta emakumezkoa izatea aktibo bat da gaur egun. Bizi gara mundu batean non eta mundu guztiak irakurri eta idazten duen eta edonork idazletzat duen bere burua. Hori iristen zaizkigun eskuizkribuetan sumatzen da. Guk baditugu sail batzuk gazteleraz ere, nobela beltzari eskainitakoa da nagusiena, eta egunero iristen zaizkit sail horretarako eskuizkribuak. Gurean hori gertatzen bada, zer izango ote da argitaletxe handietan. Zalantzarik gabe euskaraz idazteak abantailak baditu.

Hogeita bi urte daramatzazu ofizioan. Zure pozik handiena idazle handien obrak argitaratzeak emango zizun. Ni Saizarbitoariaren “Hamaika pauso” lanarekin estreinatu nintzen. Zori hori izan nuen.

Nobela harrigarri bat izanik ere, ez dirudi oso komertziala izango zenik. Errazagoa izan al zen «Hamaika pauso» merkaturatzea «Martutene» baino? Galdera zaila da. Hogei urteotan asko aldatu da gure gizartea eta gure literatura. “Martutene” narratiboagoa da eta errazago irakurtzen da; “Hamaika pausok”, aldiz, oraindik ere nobela esperimentalaren hipotekak ditu. Edozein modutara ere Saizarbitoriak poz handiak eman dizkit bere itzulerako lanak egokitu zitzaizkidalako. “Bihotz bi”

XABIER MENDIGUREN • ELKAR

«Sare sozialek pista asko ematen dituzte idazle berriak aurkitzeko»

Xabier Mendigurenek 51 urte ditu eta 23 zituela hasi zen editore lanetan. Hogeita zortzi urte eman ditu Elkarren literatura saileko arduradun. Idazlea ere bada, eta bi ofizioen arteko loturaz aritu zaigu.

Egia al da editore batek bista galtzen duela eskuizkribuak irakurtzen?

Horixe da editore baten egiteko funtsezkoenetako bat. Argitaletxe batetik bestera aldatu egingo dira zifrak, baina, nire kontuen arabera, bost eskuizkributatik bat argitaratzen da Elkarren. Erdal argitaletxeetan irakurritakoen eta argitaratutakoen arteko tartea askoz ere handiagoa da, ehunetik batekoa izan daiteke. Beraz, oso zaila da euskal editore bati obra on batek edo talentu batek ihes egitea, zuri lilurarik eragiten ez badizu, hurrengoak atzemango duelako. Dena den, iruditzen zait gaur gehiago botatzen direla atzera orain hogeit bat baino, lehen gutxiago jasotzen zirelako, noski. Gehiago botatzen dira atzera, nahiz eta hizkuntzaren txukuntasun maila asko igo den. Esan daiteke, beraz, hizkuntza txikietako idazleek badituztela

abantailak: editore bati bidaltzen zaion guztia irakurtzen dugu eta hori ez da gertatzen erdal argitaletxe handietan.

Zuen argitaletxean sariketa eta beken bidez (Igartza beka, Agustin Zubikarai eta beste zenbait) pasatzen duzue galbahea. Bide ona al da idazle berriak aurkitzeko?

Idazle berriak detektatzeko antena on bat bada. Proiektu irabazleaz gainera beste zenbait egitasmo interesgarri ikus ditzakezu eta harremanetan jar zaitezke egileekin. Baina badaude bide gehiago ere. Garai batean egunkarietan argitaratzen ziren ipuinei jartzen nien arreta. Gaur horrek baino pista hobeak ematen dituzte sare sozialetako blogek eta testuek. Badakit, esate baterako, Twitterrek muga handiak dituela, baina, bere laburrean, literaturazaleak detektatzeko balio du eta ikus daiteke idazteko joera nork duen. Papereko edizioetan adina pista aurki daitezke sare sozialetan idazle berriak antzemateko.

Idazle berriei, idazle gazteei egiten die leku zuen argitaletxeak.

Ni hasi nintzenean idazle gazteei ez zitzaien kasu askorik egiten. Orain beste muturrera pasatu gara eta gaztetasunaren gehiegizko gorazarrea ere egiten da. Pako Aristi, Juan Luis Zabala, Inaxio Mujika, Aranbarri edo ni neu oso gazterik hasi ginen idazten, baina ez zegoen gazte etiketaren esplotaziorik. Aurretik lanean ari ziren idazleen multzora gehitu ginen. Idazle gazteen etiketaren erabilera Lubaki Bandarekin hasi zela esango nuke. «Hemen gaude idazle gazteak», esan zuten. Aldaketa bat eman zen.

Gogoratzen naiz ni hasiberria nintzela editore kolega bati entzun niola ezin genuela apusturik egin gazteen alde, gazteek gutxi saltzen zutelako. Nik

jostailu bat izan zen berarentzat eta guretzat ere bai. Gogoratzen naiz zein azkar idatzi zuen, aurreko nobela traumatiko horretatik libratu ondoren. Atxagaren lan batzuk, “Zeru horiek”, “Banbulo” eta abar ere nire eskuetatik pasatu ziren.

Horrelako lan baten jarraipena egiteko harreman estuak beharko dira idazlearekin.

“Hamaika pauso” etorri zitzaidanean bi aste osorik hartu nituen eta bi aldiz irakurri nuen gizonarekin hitz egin aurretik. Idazleari gutxienez gure aldetik ahalegin bat zor zaio.

Saizarbitoria eta Atxaga aipatu dituzu. Zein gehiago dituzue Ereinen nominan?

Joxemari Iturraldekin eta Pello Lizarraldekin ere gurekin atera dituzte zenbait lan, beste bi aipatzearren. Lizarralderi esan ohi nion nik bi arrarorekin aski nuela, baina beti utzi izan diot berak nahi duena egiten. Ni neu ere horren zalea naiz, bakean utz nazaten nahi izaten dut eta ondo konpontzen naiz jende bereziarekin. Bakoitza nolakoa den jakin behar da harremanetan arazorik ez izateko. Tarteka, oso tarteka, bazkari bat egin edo elkarrekin egun-pasa bat egin dezakegu, baina lana bukatzen duten arte ez naiz ezertan hasten. Lizarralderen kasuan, adibide bat aipatzeko, Eguberritarako bukatuko du bere lana. Xabier Olarra bere laguna da eta hark ere irakurriko dio eta erabat borobilduta iritsiko da nire eskuetara. Saizarbitoriarekin ere harreman oso estua dut. Hogeit bat urte daramatzagu elkarrekin haserretu gabe. Telefonoz askotan hitz egiten dugu eta tarteka afari bat egin ere bai.

Zuen lanetako bat ez al da idazleari gomendioak eman edo hobetzeko bideak seinalatzea?

Egin izan dugu, saiatu izan gara, baina ez da erraza izaten. Inoiz badakit nobelaren bat hobetzea ere lortu dudala, baina oso esparru labainkorra da. Nobela baten bizkarrezurra eginda dagoenean ez da erraza eskua sartzea. Zirujau lana oso zaila da.

Badakigu ez dela dirurik mugitzen literatura lanen edizioan. Baina hitz egiten al duzue diruaz edo gai tabua da?

Itzultzaileek, esate baterako, kontzientzia profesional zorrotzagoa dute eta oso garbi hitz egiten dute lan baldintzez eta diruaz. Baina, idazleek, ez. Dirurik balego, tiradak ehun milakoak izango balira, beharbada aterako zen gaia, baina zoritxarrez ez da dirurik mugitzen. Hemen mundu guztiari ehuneko hamarra ematen zaio, eta, salmentak handiagoak direnean, gehiago. Aurrerapenak egiten direnean ere, txikiak izaten dira, ehuneko hamarreko horrena aurreratzen da. Ez du zerikusirik argitaletxe handiek erabiltzen dituzten zifrekin. Milioi askoren zurrumurruak ibiltzen ziren 80ko hamarkadan. Hemen ez da horrelakorik. Hemen argitaratzearekin konformatzen dira idazleak.

Bostehuneko tirada bat nahikoa da gastuak estaltzeko?

Inondik ere. Hasteko, behartuta gaude generoka hainbesteko tirada bat egitera, diru-laguntzak jaso ahal izateko. Saiakeran 750 izan daitezke, poesian 500ekoa dela uste dut muga eta nobelan handiagoa da. Baina inprentako gastuak eta idazleari ematen zaion apurraz gainera zuzenketak daude, filologiaren gatibu bizi garelako, eta argitaletxearen funtzionamendu gastuak. Errentagarritasunik gabeko atala izaten da normalean literaturarena eta beste sail batzuetatik ateratzen du argitaletxeak etekina, eskolarako materialak egitetik gurean eta beste batzuetan.

Argitaletxe bakoitzak badu bere idazle nomina. Zer arrazoi dituzte editore baten edo bestearen inguruan biltzeko? Arrazoi ideologikoak edo politikoak al daude?

Ez dut uste orain arrazoi horiek pisu handia dutenik, garai batean gehiago. Fideltasuna ere txikiagoa da gaur egun. Batean argitaratzen ez badiote, beste argitaletxe batera doa idazlea eta ez da ezer gertatzen.



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

pentsatu nuen argitaletxearen geroa ez direla izen ezagunak, berriak baizik. Garai hartan ere baziren hemen idazle ezagunak: Txilardegi bera, Sarrionandia batzuetan, Joxeaustin Arrieta eta beste zenbait, baina iruditzen zitzaidan berriak bilatu behar zirela eta bereziki saiatu izan naiz lan horretan. Idazle berri horietako batzuek, gainera, komertzialki oso ondo funtzionatu dute.

Izan al duzu norbait ezagutzero ematearen pozik?
Unai Elorriagaren kasua aipa dezaket, bat aipatzeko. “SPrako tranbia” izango zenaren zirriborro gisako bat bidali zuen Igartza sariketara. Igartza sarietan ez dugu idazleen berririk, egitasmoak bakarrik ezagutzen ditugu. Bere egitasmoak ez zuen irabazi, arraroegia zelako beharbada, baina niri liluragarria iruditu zitzaidan. Han literatura asko maite zuen norbait zegoela iruditu zitzaidan, idazteko estilo propio bat zuena. Deitu nion eta ez nekiela zer kontatu nahi zuen baina nire konfiantza osoa zuela adierazi nion; eta idatzi zuen lan hura. Harrotasun hori barruan daramat. Gazteengan literaturarekiko interesa da gehienbat begiratzen dudana. Badago jende bat oso ondo idazten duena, baina gutxi irakurtzen duena, eta horiek ez dute bide luzea egiten. Elorriaga aipatu dut, baina zorionez gurekin estreinatu diren idazle gazteak asko dira.

Zenbat eskuizkribu irakur ditzake editore batek urtearen buruan?
Guk haur, gazte eta helduen literaturan 50 bat izenburu aterako ditugu urtean. Horrek esan nahi du guztira 250 lan aztertu ditugula. Horrek ez du esan nahi 250 nobela direnik, hori ezinezkoa izango zen, tartean haurrentzako ipuin labur asko dago, noski, eta horiek ordubetean irakurtzen dira. Zifra horrek ez du esan nahi goizeko ordu txikietara arte irakurtzen egoten garenik.

Editore batek idazle multzo bat izan ohi du bere inguruan. Zein arrazoi dituzte argitaletxe



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

batera gerturatzeko eta ez beste batera?
Gu argitaletxe bezala ez gara saiatu idazle multzo bat geuretzat hartzen eta horretarako arrazoi bat baino gehiago ditugu: berez oso argitaletxe handia da hau. Txikia zarenean egin dezakezu komunitate bat, elkarrekin tarteka bildu eta lotura horiek estutzen saiatu. Baina gurea handiegia da horretarako. Oso estilo, gai eta are ideologia ezberdinetako jendeak argitaratzen du gurekin. Bai idazlea eta bai testua ahalik eta ondoen tratatzen saiatzen gara, baina ez dugu ahalegin berezi bat egiten gurekin bakarrik argitara dezaten. Inoiz idazleren batek esan izan digu gogoa duela beste batekin zerbait argitaratzeko eta

ea horrek minduko gaituen; nik beti esan diot ezetz eta hurrena berriro datorrenean ateak zabalik izango dituela.

Norbaiti ezetza ematea gogorra al da? Ezezkoa goxatzerik ba al dago?
Oso gogorra. Ofizio honetan gauzarik gogorrena horixe da. Eta ezezkoa, asko goxatuta ere, ezezkoa da. Testu bat txarra izanda ere, badakizu atzean pertsona baten ahalegin handi bat dagoela. Ezezkoa jasotzen duenarentzat gogorragoa da, baina gogorra da guretzat ere. Izaera kontua ere bada. Ni ez naiz batere gogorra gauza hauetarako. Hasieratik ohartu nintzen testu bat gustatzen bazitzaidan berehala deitzen niola idazleari eta jartzen nintzela harremanetan, baina ezetza eman

«Ni hasi nintzenean idazle gazteei ez zitzaien kasu askorik egiten. Orain beste muturrera pasatu gara eta gaztetetasunaren gehiegizko gorazarrea ere egiten da»

«Idazleak asko ematen dio gizarteari. Egiten duen ahalegina izugarria da. Jasotzen duena, aldiz, beti izango da gutxi. Ekonomikoki gutxi da euskal idazleen kasuan, baina feedbacka ere urria izaten da»

behar nuenean idatziz nahiago izaten nuela. Horretan irizpide bat jarraitzen dut: norbaitek testua aurrez aurre eman badit, aurrez aurre ematen diot ezetza, eta, idatziz bidali badit, idatziz. Kontua da ezezkoaren arrazoiak eman behar izaten direla. Idazle batzuek asko eskertzen dute arrazoiak ematea edo kritika xehe bat egitea. Beste batzuek, aldiz, txartzat hartzen dute. Badago jende bat esaten duena; ezetza emateaz gain pixa egiten didate belarrira gaizki zer dagoen esanez. Idazle bakoitzak modu ezberdinean hartzen ditu ezezkoak eta kritikak. Zaila da asmatzen.

Editore baten lanaren zati handi bat idazleekiko harremana da. Izan beharko luke, baina ez dugu behar beste lantzen. Idazleak nahi

duen neurrian esku artean duen lanaren jarraipena egin dezakegu, baina, gehiegi insistentzia ere kaltegarri izan daitekeelako, ez ditugu behar beste goxatzen harremanak. Askok bukatu arte ez dute ezer kontatzerik nahi izaten. Beste batzuek eskertu egiten dute interesa. Beti esaten diet, dena den, edozein momentutan zati bat bidali nahi badidate, komentarioak egiteko prest nagoela. Batzuekin gelditzen naiz zerbait hartzeko, baina adiskidetasun harremana dudalako da eta ez laneko kontu bat.

Klixea da, baina beti esaten da idazlea izaki zalantzaz betea dela, hauskorra eta etengabe behar dituela animoak. Idazleak asko ematen dio gizarteari. Egiten duen ahalegina izugarria da. Jasotzen duena, aldiz, beti izango da gutxi. Ekonomikoki gutxi da euskal idazleen kasuan, hori gauza jakina da, baina feedbacka ere urria izaten da, irakurleak gutxi direlako eta uzkur samarrak garelako ere bai. Sare sozialetako ezagunen artean baditut erdal idazle batzuk eta fan multzo bat dute atzetik. Hemen ez da horrelakorik, beste izateko modu bat dugulako. Guri norbaitek kalean gelditu eta azken nobela asko gustatzen zaiola esaten badigu, urduri jartzen gara, nahiz eta hitz goxoak eskertzen ditugun.

Badago idazle perfekturik, koma bat aldatu beharrik gabe beren lanak bidaltzen dituenik? Gutxi, baina badaude bat edo beste. Testuak erabat borobilduta ekartzen dituen idazleetako bat Julen Belamuno da. Iaz liburu bat atera genion eta datorren urtean aterako diogu beste bat. Juan Gartziairen komei buruzko teoriak ere ezagutzen ditu eta ez zaio ukiturik ere eman behar. Hizkuntza aldetik oso interesgarria da. Hor abaniko zabala dago; testu batzuetan guk ez dugu inolako meriturik, dena idazleak jarri du, eta, beste kasu batzuetan, lagundu dugu testua hobetzen. Gure ekarria isilpean geratuko da eta hala behar du gainera.

GORKA ARRESE • SUSAS

«Hiru formatuak erabiltzen ditugu aldi berean liburuak argitaratzeko: papera, on line osorik eta doan eta e-book gisa»

Galeradak bidali ondoren inspiratzen direnak ere egoten omen dira.

Bai, baina onartu egin behar da hori ere. Izenik ezin dut esan baina bazen editore bat frogak idazleei pasatzen ez zizkienera, aldatu egiten zituztelako. Aldatzeko eskubidea dute. Normalean egiten dituzten aldaketak arrazoizkoak izaten dira.

Zenbat saldu behar da zorrik ez egiteko? Hitz egiten al duzue idazleekin diruaz?

Normalean 700 aletik gorako tiradekin ibiltzen gara. Kontua stockean ez edukitzea da. Zorrik ez egiteko 500 aletik gora saldu behar direla esango nuke. Dena den, esan beharra dago argitaletxe gehienak beste atal errentagarriago batzuei esker bizi direla. Eskolako testuliburuaren atalak eta beste batzuek mantentzen dute argitaletxea. Bestalde, dirua ia ez da aipatzen. Liburu bat atera eta bi mila ale saltzea asko saltzea da, baina aleko euro eta erdi irabazten baditu idazleak, hiru mila euro bakarrik doazkio poltsikora. Horrek esan nahi du idazlea ezin dela urrutitik ere profesionalizatu literatura liburuak idatzita, eta beste hainbat enkarguri esker biziko dela. Gauza asko eta ezberdinak egin behar izaten dituzte, erakusketa baten katalogoa, programa baten atariko testua, telesailatako elkarrizketak... literaturarekin zerikusi zuzenik ez dutenak.

Editore batzuek idazle ere bazarete. Horrek laguntzen du idazleekin harremanean?

Idazleak ulertzen lagundu dit, baita testuaren barrunbeak hobeto ikusten ere. Gehiago idatziko ez banu ere, ulermen maila hori badaukat. Editore izateak lagundu didan idazteko? Hizkuntzarekin etengabe lanean ari garenez, idazkeran lagundu dit, baina promozioari begira ez dit lagundu, ez naizelako inoiz saiatu neure burua idazle gisa promozionatzen edo neure burua beste editore batzuei proposatzen, itsusia iruditzen zaidalako. Horrek mugatu egin nauela uste dut, baina hori nire harrokeriatxo bat ere izan daiteke.

Susa aldizkaria izan zen argitaletxe baino lehen eta orain 32 urte argitaletxe bilakatu zenean inguruko idazleak hasi ziren liburuak argitaratzen: Josu Landa, Iñaki Uribe, Xabier Montoia, Pablo Sastre eta abar. Poesiak pisu berezia izan du Susako katalogoan eta poesiaren inguruko proiektu handi batzuk ere burutu dituzte, hala nola Arestiren lan osoak 1986an edo Koldo Izagirrek prestatutako “XX. mendeko poesia kaierak”. Argitaletxeak atera zuen aurrera Ibiñagabeitia proiektua ere, euskarazko literatura aldizkariaren gordailu digitalarena alegia, beste bat aipatzearren.

Urteak daramatzazu editore lanetan.

32 urte dira argitaletxea martxan jarri genuela. Lehen lau urteetan Josu Landa izan zen editorea eta

geroztik nago ni. Hasierako idazle gehienak aldizkariaren inguruan ibilitakoak ziren, baina bazeuden berriak ere, Iñigo Barandiaran, Iñaki Lasa edo Jon Arano, esate baterako. Iñigo Aranbarri ere ez genuen ezagutzen. Orain ere jarraitzen dugu idazle ezezagunei argitaratzen. Aurtengo udaberriaren Be Salaberriren liburu bat atera dugu. Donamartiriko neska bat da, Baionan bizi dena, eta bere lehen kontakizun liburuak argitaratu dugu, “Baionak ez daki”.


Zer arrazoi izan ditzake idazle ezezagun batek Susara jotzeko?

Gure liburuak ezagutzen dituelako etorriko da seguru asko. Argitaletxea sinpatikoa egingo zaie edo beren modukoa.

Urtean zortzi liburu berri argitaratzen dituzue. Zortzi

horiek aukeratzeko beharbada berrogei eskuizkribu pasatuko dira zure eskuetatik.

Askoz ere gutxiago. Elkarrek, esate baterako, sarien eta beken bidez sare handi bat dauka idazle berriak atzeman ahal izateko. Guk lagunen bidez konektatzen dugu idazle berriekin. Lehen literatura aldizkariaren bidez ere ezagutu genuen bat baino gehiago. Igor Estakonak, este baterako, “Zantzua” izeneko aldizkari batean idazten zuen eta arreta ematen zidan bere idazteko moduak. Denek ezizenekin izenpetzen zituzten beren lanak eta galdetu nuen Stanley goitizenez izenpetzen zuena nor zen. Orain idazle berriak blogetan ere aurki daitezkeela diote, baina horietan literatura gutxi egiten da eta egiten dena oso momentukoa da.



Tarteka pluralean hitz egiten duzu. Zutaz gainera beste zein ari dira argitaletxean lanean?
Ni naiz langile bakarra. Originalak nik irakurtzen ditut eta inguruan lagun irakurle batzuk izaten saiatzen naiz beti, beren iritziak eman diezazkidaten. Idazle lagun bati ez diot inoiz ematen testu bat, oso eskuzabal jokatzeko dutelako, zabalegi. Askoz zorrotzagoak dira testu bat juzgatzerakoan irakurle soilak direnak eta beti saiatu izan naiz inguruan aholkulari gisa irakurle lagunak izaten. Idazleari baietza emateko orduan oso seguru egoten naiz gehienetan. Zalantzak sortzen dizkidaten liburuak ez dira hainbeste. Ondoren testua taxutzen edo zuzentzen lagun diezaioket idazleari, eta, bukatzen dudanean, Mikel Elortzari pasatzen diot azken zuzenketak egin ditzan. Elortzak, beraz, lehen aldiz hartzen du testua eskuetan, erabat birjin. Irakurle horiek entrenatuak behar dute, asko irakurtzen dutenak izan behar dira; berehala ohartzen dira zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Idazlea nekez izan daiteke aholkulari ona, badakitelako zein zaila den idaztea.

Gogorra al da idazle bati ezetza ematea?
Ez, niretzat ez. Ezin dira argitaratu iristen diren lan guztiak. Eta ezezkoa denean argi eta garbi esaten diet ez dudala argitaratuko. Ohiturarik ez duen editore batentzat hori izango da zailena, baina ni ohituta nago. Futbol talde bateko entrenatzaile batek ere aukeratu egiten ditu hurrengo partidarako behar dituen jokalaria. Urtean zortzi liburu behar ditut eta aukeratu egin behar dut, eta, tamalez, askotan ez daukat aukeratzeko abaniko izugarria ere. Beti ez ditut Harkaitz Cano, Jon Alonso eta Iñigo Aranbarri edukitzen. Urtean zortzi liburu txukun ateratzea neurri polita da argitaletxe batentzat.

Zer harreman duzu idazlearekin testua lehen aldiz irakurri eta argitaratu bitartean?

«Urtean zortzi liburu behar ditut eta aukeratu egin behar dut, eta, tamalez, askotan ez daukat aukeratzeko abaniko izugarria ere. Beti ez ditut Harkaitz Cano, Jon Alonso eta Iñigo Aranbarri edukitzen. Urtean zortzi liburu txukun ateratzea neurri polita da argitaletxe batentzat»

«Editorea zer den definitu beharko banu, idazle baten laguntzailea dela esango nuke. Bere liburua ahalik eta onena izan dadin lagundu behar dio. Idazle batek bost liburu nirekin ateratzen baditu, bosgarrenerako adiskidetasuna ere sortzen da. Argitaletxea zer da? Idazlearentzako tresna bat»



Jose Angel Irigarai idazlea eta Gorka Arrese editorea, 2010eko Durangoko Azokan, hizketan. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Konfiantzaren arabera izaten da harremana. Iñigo Aranbarriekin, esate baterako, idazten hasi aurretik ere hainbat zertzeladari buruz eztabaidatzen aritu izan naiz, pertsonaiei buruz edo hauen portaeraz edo kontraesanez. Bere istorioari zer arrisku ikusten dizkiodan galdetzen dit berak eta konjeturak egiten hasten gara.

Hori izango da editore baten lanaren alderdirik sortzaileena?
Zalantzarik gabe. Editorea zer den definitu beharko banu, idazle baten laguntzailea dela esango nuke. Bere liburua ahalik eta onena izan dadin lagundu behar dio. Idazle batek bost liburu nirekin ateratzen baditu, bosgarrenerako adiskidetasuna ere sortzen da. Argitaletxea zer da? Idazlearentzako tresna bat. Gure kasuan, gainera, Susa idazleek sortutako argitaletxea da. Ez dugu negozio bezala ikusten, baizik eta bizikizun literario edo kultura gisa. Idazle batek laguntza eskatzen badit, dokumentazio lana egiteko esate baterako, nik disfrutatu egiten dut laguntzen.

Demagun ateratzera zoazten Harkaitz Canoren ipuin

liburua. Berak nahikoa bukatu ekarriko zizun.
Bai, baina demagun ipuin batek ez duela nahikoa oreka, luze hasten dela eta labur bukatzen dela; esan egiten diot, eta, ahal badut, argudiatu. Askotan sentipenak besterik ez dira. Batzuetan aintzat hartzen ditu eta beste batzuetan ez. Ipuin liburu honetan berridazketa asko egin ditugu. Nahiz eta idazleak oso maila handia izan, beti egoten dira kanpotik komentatzeko moduko zertzeladak. Eta ezer esaten ez diedanean moskeatu egiten dira. Editoreak oso malgua izan behar du. Editore batek ezin du pentsatu bere gustuko liburuak bakarrik argitara daitezkeenik, irakurleei begira lan egin behar du. Bakoitzak bere estiloan onena eman dezan saiatu behar du. Dena den, garbi utzi behar da idazleek eraikitzen dutela argitaletxe bat, nahiz eta editoreak ere baduen bere partea, berak aukeratzeko baititu liburuak. Nik Alemanian argitaletxe bat sortuko banu, neure gustuko lerro bat marka nezake, baina ez da gure kasua. Susaren ideologia eta estetika zein da? Argitaratu ditugun idazleek ezarri dutena. Diferentzia

batekin: beste argitaletxeen aldean badugula edizio politika bat, gutxi argitaratzekoa eta literatura bakarrik argitaratzekoa, eta, gainera, helduen literatura bakarrik. Eta argitaratzen duguna hiru formatutan argitaratzen dugu: paperean, on line osorik eta doan eta 3,50 eurotan e-book formatuan.

E-book bertsioa webgunean erosten da. Horrek ere izaera bat ematen digu. Ezin da esan *online* jartzeak erosleak kentzen dizkigunik. Beharbada, eman egiten dizkigu. Liburutegi publikoek erosleak kendu egiten al dizkigute?

Zuek iraun ahal izateko, beste proiektu batzuk landu izan dituzue, Literatura Aldizkariaren Gordailua esate baterako.
Liburuek beren burua ordaintzen dute. Poema liburu batek ez, baina nobelek ematen dutenarekin berdintzen da. Susak langile bakarra dauka, ni neu, eta nire soldata, doi samar bada ere, ateratzen da. Bolada batzuk izan ditugu, proiektu zenbaitek laguntzak izan dituztelako, erosoago ibili garenak. Baina gure liburuak gai dira argitaletxea sostengatzeko.